BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3462

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 7koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez Ingeniería de Gestión Industrial, S.L. sozietateari erakunde baimenduaren izendapena berritzen baitzaio, EAEn zenbait tresnaren egiaztapen metrologikoak egiteko.

Erref.: 01-OV-1005.

AURREKARIAK

1.– 2014ko martxoaren 31n, Alberto Cabello de los Cobos Garciak, Ingeniería de Gestión Industrial, S.L. (Ingein) sozietatearen izenean eta ordezkaritzan (Arabako Parke Teknologikoa, Eraikin nagusia, Lumier anaiak kaleko 1. solairua, 5. bulegoa, Miñao), egiaztapen metrologikorako erakunde baimenduaren izendapena berritzeko eskabidea aurkeztu du, zehazki, honako hauen guztien egiaztapen metrologikoa egiteko: ibilgailuak erregai gisa erabiltzeko ez diren substantziz zuzkitzeko hornigailuak, pneumatikoetarako erabilera publikoko manometro analogikoak eta elektronikoak, likatasun gutxiko likidoak garraiatzeko zisterna-kamioietarako neurketa-sistemak, tenperatura-erregistragailuak eta termometroak, modu ez automatikoan funtzionatzen duten pisaketa-tresnak, erregai gisa erabiltzeko substantzien hornigailuak, gasolina-ibilgailuen ihes-gasen igorpenen neurketak, eta diesel-ibilgailuen opakotasunaren eta argiarekiko xurgapen-koefizientearen neurketak.

2.– 2012ko martxoaren 14ko Ebazpen baten bidez, ibilgailuak erregai gisa erabiltzeko ez diren substantziz zuzkitzeko hornigailuen egiaztapen metrologikorako erakunde baimendu izendatu zen Ingein sozietatea, eta likatasun gutxiko likidoak garraiatzeko zisterna-kamioietarako neurketa-sistemen egiaztapena egiteko izendapena berritu zitzaion.

2012ko urtarrilaren 26ko Ebazpenaren bidez, tenperatura-erregulagailuen eta termometroen egiaztapen metrologikoa egiteko erakunde baimendu izendatu zen Ingein sozietatea.

2013ko maiatzaren 10eko Ebazpenaren bidez, pisaketa-tresna ez automatikoen egiaztapen metrologikoa egiteko erakunde baimendu izateko izendapena berritu zitzaion Ingein sozietateari.

2010eko urriaren 26ko ebazpen batzuen bidez, Ingein sozietatea honako hauen guztien egiaztapen metrologikoa egiteko erakunde baimendu izendatu zen: erregai gisa erabiltzeko substantzien hornigailuak, pneumatikoetarako erabilera publikoko manometroak, gasolina-ibilgailuentzako ihes-gasen igorpenen neurketak, eta diesel-ibilgailuen opakotasunaren eta argiarekiko xurgapen-koefizientearen neurketak.

3.– Egiaztapen metrologikoak egiteko erakunde baimendu gisa jarduteko izendapena berritzeko, erakunde eskatzaileak Industriako idazkari nagusiaren 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean xedatutako baldintzak bete beharko ditu, zeinen bidez argitaratzen baita azaroaren 26ko 1/2007 jarraibidea, egiaztapen metrologikoetarako erakunde baimenduak izendatzeko dena. Hartarako, ENAC-ek emandako OC-I/167 Akreditazio-ziurtagiria aurkeztu da, eskatutako tresnak jasotzen dituen Eranskin Teknikoarekin batera (8. Ber., 2014-01-24koa), eta, horrenbestez, eskatutakoari jarraikiz, berritu egin behar da izendapena.

Espediente hau ebazteko, beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea:

ZUZENBIDE-OINARRIAK

1.– EAEn metrologia-kontrola burutzeko baliabideak ezartzen dituen 8/2001 Dekretuaren 11. artikuluak zehazten duenaren arabera, industriaren arloan eskumena duen organoak egiaztapen metrologikorako erakundeak gaitu ahal izango ditu, konponketa eta aldaketen ondorengo egiaztapena eta aldizkako egiaztapena egiteko.

2.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza da ebazpen hau emateko eskumena duen organoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraikiz (2013-04-24ko EHAA).

3.– Neurgailuen kontrol metrologikoa arautzen duen oinarrizko legeria honako hauek osatzen dute: metrologiari buruzko 3/1985 Legeak (ekainaren 28ko 1296/1986 Legegintzako Errege Dekretuak aldatu zuenak), abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, neurketa-tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuak, eta aipatutako 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenak.

4.– Sustapen Ministerioaren 1999ko apirilaren 27ko Agindua, zeinen bidez arautzen baita pisaketa-tresna ez-automatikoetan Estatuak egin beharreko metrologia-kontrola.

5.– Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2004ko apirilaren 23ko Agindua, zeinen bidez arautzen baitira pisaketa-tresna ez-automatikoen egiaztapen-erakundeak (3.000 kg baino gehiagoko neurketa-ahalmena).

6.– Konpresio bidez martxan jartzen diren motorrak (diesel) dituzten ibilgailu automobilen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko zerbitzu-fasean dauden tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen azaroaren 22ko ITC/3749/2006 Aginduak, entseguak, horien egikaritzea eta onartutako gehieneko akatsak zehazten ditu IV. eranskinean.

7.– Azaroaren 22ko ITC/3722/2006 Aginduak, txinparta bidez martxan jartzen diren motorrak (gasolina) dituzten ibilgailuen ihes-gasen igorpenak neurtzeko zerbitzu-fasean dauden tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duenak, entseguak, horien egikaritzea eta onartutako gehieneko akatsak zehazten ditu II. eranskinean.

8.– 1995eko apirilaren 25eko Ministro Agindua, aldizkako egiaztapenetan eta konpondu zein aldatu ondorengoetan, ibilgailu automobilen pneumatikoetarako erabilera publikoko manometroetan Estatuak egin beharreko metrologia-kontrola arautzekoa.

9.– ITC/3700/2006 agindua, azaroaren 22koa, motordun ibilgailuen pneumatikoen presioa neurtzeko predeterminazio-gailuak dituzten edo ez dituzten osagai elektronikoez erabat edo partzialki hornitutako manometroen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

10.– Azaroaren 22ko ITC/3720/2006 Aginduak, uraz bestelako likidoen neurketa-sistemen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzekoak (hornigailuak edo banagailuak deiturikoak), III. eranskinean zehazten ditu entseguak, burutzapena eta baimendutako gehieneko akatsak.

11.– Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2004ko apirilaren 26ko Agindua, zeinaren bidez arautu egiten baitira uraz bestelako likidoak –erregaien eta erregai likidoen hornidurarako

erabiliak– eta ibilgailu automobilen pneumatikoetarako erabilera publikoko manometroak neurtzeko sistemak.

12.– Azaroaren 22ko ITC/3750/2006 Agindua, likatasun gutxiko likidoentzako zisterna-kamioietako neurketa-sistemen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzekoa.

13.– Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko otsailaren 29ko Agindua, likatasun gutxiko likidoetarako (≤= 20 mPa s) zisterna-kamioietako neurketa-sistemen entitate egiaztatzaileen, konpontzaileen eta titularren obligazioak arautzen dituena.

14.– Industriako Idazkaritza Nagusiaren 2009-07-15eko Ebazpena, azaroaren 22ko ITC/3750/2006 Aginduaren III. eranskina aldatzekoa.

15.– Azaroaren 22ko ITC/3701/2006 Agindua, tenperatura kontrolatuan produktuak garraiatu, biltegiratu, banatu eta kontrolatzeko termometro eta tenperatura-erregistragailuen gainean Estatuak egin beharreko kontrol metrologikoa arautzen duena.

16.– ITC/360/2010 Agindua, otsailaren 12koa, ibilgailu automobilak erregai gisa erabiltzen ez diren substantziez hornitzeko uraz bestelako likidoak neurtzeko sistemen (hornigailuak edo banagailuak) gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

Adierazitako legezko aginduak eta aplikazio orokorreko gainerako xedapen konkordanteak aztertu ondoren, eta Industria Zerbitzuko buruak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Ingeniería de Gestión Industrial, S.L. enpresari (Arabako Parke Teknologikoa, Eraikin Nagusia, Lumier Anaien kalea, 1. solairua, 5. bulegoa, Miñao) berritu egiten zaio honako tresna hauen egiaztapen metrologikorako baimendutako erakunde gisa daukan izendapena:

– Pisaketa-tresna ez-automatikoak, 0 kg-tik 200.000ra artekoak; I m mota (30 kg eta n (500.000; II m mota (3.000 kg; III eta IIII m mota (200.000 kg.

– Uraz bestelako likidoak neurtzeko sistemak, erregai gisa erabiltzeko ez diren substantziez automobilak hornitzera bideratuak; gutxieneko kantitatea: 1 l.

– Erabilera publikoko manometro analogikoak eta elektronikoak, 0tik 17 bar-era bitartekoak.

– Likatasun gutxiko likidoak (<= 20 mPa.S) garraiatzeko zisterna-kamioietarako neurketa-sistemak (emariak presio atmosferikoan 20 l/min-etik 1.300 l/min-era bitarte direnean).

– 0,5, 1 eta 2 motako termometroak, -20 ºC-tik 70 ºC-rainokoak (bai in situ, bai laborategian), eta tenperatura-erregistragailuak, 1 eta 2 motakoak, -20 ºC-tik 70 ºC-rainokoak, barne edo kanpo zundarekin (bai in situ, bai laborategian).

– Likido erregaietarako aparatu hornigailuak, 200 l/min-ko emariekin.

– Konpresio bidez martxan jartzen diren motorrak (diesel) dituzten automobilen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko tresnak.

– Txinparta bidezko pizte-sistemadun motorrak (gasolina) dituzten ibilgailuen ihes-gasen isurketa neurtzeko tresnak.

Berritze horren irismena ENACek emandako egiaztapenean bildutako tresnetan oinarritzen da (OC-I/167 Eranskin Teknikoaren araberakoa; 8. berrikuspena, 2014-01-24koa).

2.– Ematen den baimenari, honako baldintza hauek ezartzea:

– Euskal Autonomia Erkidegoko tresnetan jardungo du.

– Tresnak probak gainditzen baditu, egiaztatu izanaren etiketa erantsiko dio erakundeak. Halaber, kontrol metrologikoko egiaztagiri bat emango da, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak ezartzen duenarekin bat etorriz.


Probak gainditzen ez baditu, zerbitzua emateko gaitasungabetua dagoela adierazten duen etiketa gorria itsatsiko zaio. Hori guztia, uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuaren I. eranskinarekin bat etorriz egingo da. Halaber, egiaztatzea gainditu ez duen tresnaren berri emango zaio, berehala, tresna dagoen lekuko lurralde-ordezkaritzari.

– Egiaztapena burututa, Ingeniería de Gestión Industrial, S.L. sozietateak tresna zigilatuko du zigiluen bidez edo, posible bada eta bortxaezintasuna bermatzen bada, etiketa itsasgarri auto-suntsigarrien bidez. Ez dira inolaz ere berunezko zigiluak edo antzekoak erabiliko; zigiluok jardueraren girorako egokiak eta iraunkorrak izan beharko dute. Espainiako Metrologia Zentroaren (CEM) eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren gida eta gomendioei jarraitu beharko zaie.


Edonola ere, zigiluek inskripzio hauek izango dituzte:

a) Zigilu normala:


Aurrealdea



Atzealdea




b) Zigilu enbutitua:




c) Plastikozko zigilua:

Aurrealdea



Atzealdea



“XX” egiaztapena egin den urtearen azken bi digituei dagokie.

3.– Ingeniería de Gestión Industrial, S.L. sozietateak urtero emango dio zuzendaritza honi baimentzen diren entseguetarako ezartzen dituen tarifen berri.

4.– EAEko erakunde baimenduen erregistroan, zenbaki hau ematen zaio Gestión Industrial, S.L. sozietateari: 01-OV-1005.

5.– Ingeniería de Gestión Industrial, S.L. entitateak honako hauetan xedatutakoari jarraituko dio uneoro: neurketa-tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretua, izendapen honen oinarri juridikoetan adierazitako aginduak, eta 2007ko azaroaren 27ko Ebazpena, eta bai Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak ezarritako beste edozein xedapen ere.

6.– Izendapen-berritze hau 2018ko abenduaren 31n iraungiko da, eta, egun hori baino lehen, interesdunak beste berritze bat eskatu ahal izango du, 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean –egiaztapen metrologikoko erakunde baimenduak izendatzeko– xedatutako baldintza guztiak betetzen baditu.

7.– Izendatutako erakundeak egindako jarduerak ikuskatzeko, esku hartzeko eta kontrolatzeko eskumena Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio, baita Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saileko Arabako Lurralde Ordezkaritzari ere. Gainera, baimen hau ahalbidetu zuten baldintzak betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko ikuskapenak egin ahal izango dituzte.

8.– Baimen honek ordeztu eta baliogabetu egiten ditu Ingeniería de Gestión Industrial, S.L.-ri egiaztatze metrologikoak egiteko aurretik emandakoak.

9.– Ebazpen hau eman eta gero, aurkeztutako agirietan egiaztatutako egoera aldatzen bada Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark baimena berretsiko du edo deuseztatu ahal izango du.

10.– Dena den, bateraezintasuna eta independentzia egongo da kontrol metrologikoa jasan behar duten neurketa-tresnen ekoizpen-, merkaturatze- eta konpontze-jarduerekiko (zerbitzuak ematea barne, baita Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudiekin bat adierazten diren jarduerak ere).

11.– Baimen hau deuseztatzeko arrazoi izango dira, indarreko legerian aurreikusitakoez gain, bertan ezarritako baldintzak ez betetzea, akreditazioa etetea edo errebokatzea, baita hura eman zen orduko inguruabarrak funtsean aldatzea ere.

12.– Izendapen hau ez berritzeko arrazoi izan daitezke arau- eta administrazio-irregularta-sunak, baita Egiaztatze Metrologikoko Erakunde Baimendua zehapenpean izatea ere.

13.– Urtero eta urtearen lehenengo hiruhilekoan, Egiaztatze Metrologikoko Erakunde Baimenduak memoria bat helaraziko die Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari eta Arabako Lurralde Ordezkaritzari, zeinetan burututako jarduerak eta jazo diren gorabeherak jasoko baitira. Halaber, lurralde bakoitzean egindako egiaztapenen berri emango zaio dagokion lurralde-ordezkaritzari, sei hilabeterik behin.

Horretaz gain, 48 orduko aurrerapenarekin, jardun-esparruaren arabera dagokion lurralde-ordezkaritzan jakinaraziko du zein diren egin beharreko egiaztatzeak, mezu elektroniko edo fax bidez jakinarazi ere.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoa betez. Lege horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 7a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.